6. Aita bere baratzian zagon, hurstatzen akabatzen bere lilien. Miatzen zituen sagar ondoac eta mahatsac. Ikhusi zuenean bidian heldu bere semea izerdiz eta erhautsez dena bethea zango herrestan doidoa sinhetsi ahal ukhan zuen. Galdegin zuen bere buruari behar zuenez gaztigatu ala barkhatu. Azkenean, nigarra begian hedatzen dazko besoac eta haren lephora yautziten zuelaric emaiten daco pot gozo bat.

7. Gero yar arazten du bere semea; oihu egiten du etchecoer eta ausoer: "Nahi dut maithatu lehen bezela, haur gaichoa, erraten dee, bildu ziren bezein laster. Aski gaztigatua izan da; nehor orai ez dezacotela erran gaizkiric. Zatozte ikhustera; ekharracozie maaplus pollit bat, ezarrakozie erhaztun bat ehiyan eta zapeta berri batzu zangoetan. Hartzen ahalco duzie ere oilarrac, ahatiac, eta aratche bat hiltzeco on dena: Edanen dugu yaan elgarrekin eta einen besta handi bat.

8. Sehiec sinhetsi zuten bere nausia eta ezarri zuten tafaila eder bat mahayaren gainean. Betbetan, seme geyena, ihizitic heldu zen bere zakurrekin:"Zer da beraz harraots hori? dio arneatzen zuelaric. Uste dut kantatzen duzien hemen. Ez da goizegi ethor nadin. Ehotu zirea, aita?".

9. Ez, semea, ez niz hala errepostu eman zuen aita zaharrac. Hola egiten badut, bozcarioz betheric bainiz. Kantatzen dugu eta uros gira ezen badugu zergatic. Nahi ukhan dezakan ala ez beharco duc kantatu hic ere eta bozcariatu gurekin ezen hire anea hila zena phiztu duc. Sorthu baliz bezela duc: Atzo galdia zukan egun horra atzemana.

Etcheto, instituteur

Note

au	se	prononce	*aou*
u	“	“	*ou*
ai	“	“	*aï*
ge	“	“	*gue*
gi	“	“	*gui*
z	“	“	*ce*

1325

ESKUIZKRIBUA IKUSI

Canton de St Etienne de Baïgorry

Commune d'Urepel

Haür prodigoa

1. Guiçon batec etçouen bi sémé baïcic. Gasténac erran cion béré aïtari: "Ordu da içan nadin neuré nagoussi, éta içan déçadan dirou. Béhar dout hémendic youan ahal içan éta baster ikhoussi. Çathi çaçou çouré ontassouna éta émaçout cer éré ukhan béhar baïtout". Baï éné séméa, dio aïtac, nahi doucan béçala. Gachto bat hiz, éta gastïgatia içanen hiz. Guéro çabaltcen douélaric tiran-t bat çathitou cian béré ontassouna éta éguin citian hartaz bi pharté bardinac.

2. Handic égoun gouti, sémé gachtoa yoan cen herritic fierraen éguinez éta erran gabé adio néhori. Trébésatou cian hanitz larré, oïhan, uhaïtz, éta yin cen hiri handi batéra non despendiatou baïtçuen béré dirou goucia. Cembaït hilabétéren bourouan béhar oukhan citian saldou béré arropac émasté çahar bati éta béré bouroua arkhilatou mouthil içatéco: igorri çouten alhorrétarat han astoen éta idien çaïntcéco.

3. Ordouan içan cen arras dohacabé. Etçouén guéhiago ohantcéric gaüas lo éguitéco ez éta souric bérotcéco hotz éguiten couélaric. Bacian batçouétan haïn gossé handia non gogotic yanen baïtçouen assa osto eta fruitou ustel cerriec yaten ditousténétaric, baïnan néhorc etçacon émaïten déoussic.

4. Gaü batez tripa hutsa, outzi cian béré bouroua érortcéra yar alkhi baten gaïnéra béhatcen çouélaric leihotic ahinki hégaldatcen cien chorier. Guéro ikhoussi citian aguertcen cérouan ilharguia eta içarrac, eta erran çouén béré bourouari nigarrez: Han éné aïtaren etchéa béthéa da mouthilez çoïnec baïtuté ogui eta ardo, arraütce eta gazna nahouten béçaïn bat. Dembora béréan ni gossès hiltcen niz hémen".

5. Eh bién! alchatuco niz, yoanen niz aïtaren édiéïtéra éta erranen dacot: Eguin nian békhatu bat nahi içan cintudanian quitatou. Hoben handia içan nian éta béhar naüçou gastigatou; badakit hori ongui. Ez néçaçula deitha guéhiago çouré séméa; ékhar néçaçou çouré cerbitchari ménosséna béçala. Hobendóun nintçan, baïnan hiratcen nintçan çouré ganic hourróun.

6. Aïta béré baratcian cen béré loren hourstatcia acabatcen çouéla; biyitatcen citouen sagartciac éta mahatxac. Noïz eta éré ikhoussi baïtçuen bidéaren gaïnéan heldou céla béré séméa déna icerdis éta erhaütsès estalia, isterra herrestaca doïdoïya sinhetsi ahal içan çouen. Galdéguin çouen béré bourouari béhar çuénez gastigatu ala barkhatou. Azkénéan, nigarrac béguiétan hédatou çascon bessoac,

eta béré bouroua botatcen çouélaric haren léphora éman çacon moussou handi bat.

7. Guéro yar araci çuen béré séméa; deithatou citian béré yendéac éta aüçouac: "Nahi dout maïthatou léhen béçala haür gaïchoa, erran céren bildiac içan ciren béçaïn laster. Aski gastigatia içan da: Néhorc eztéçacola éguin orai erréprotchu bat éré. Çatosté ikhoustéra. Ekharrocoué fité bestiment poïllit bat; écarrocoué éhastun bat éhian éta çapéta berriac oïnétan. Hartcen ahal ditousketçoue éré oïllar ahatiac éta ékhartcen hilcéco hon den aretché bat: Edanen dougou, yanen elgarrékin éta éguinen besta handi bat".

8. Çerbitchariec obéditu cioten béren nagoussiari éta éçarri çuten tafaïlla éder bat mahaïnaren gaïnéan. Dembora béréan sémé guéhiéna itçoultcen cen ihicitic béré tchacurrékin. "Cer da béraz açans haü? oïhou éguin çouen youramendourékin. Ousté dout khantatcen douçouen hémen ezda goïzégui hel nadin. Ehoua ciréa éné aïta?".

9. Ez éné séméa, ez nouc hala erresponditou cian çaharrac. Hori éguiten badout douc boscarioz béthia naïcela. Canthatcen diagou éta ourous guituc, céren badiagou ongui certaz éré. Nahi içan déçacan ala ez béharco douc canthatou hic éré éta alégueratou gourekin, céren hiré anéa hila céna itçouli baïta bicitara. Oraï sorthou baliz béçala duc; atço galdia cia, horra égún harrapatia.

Joseph Uhalt

1326

ESKUIZKRIBUA IKUSI

Canton de St Jean-Pied-de-Port

Commune de St Jean-Pied-de-Port

Haür prodigua

1. Gizon batec ez zitien bi seme baizic. Gastenac errantzien bere aitari: "Ordu da izan nadien ene buriaren naüsi eta ukhan dezan dihuria, yuan ahal nadien eta baster ikhus ahal dezatan. Zathi zazu zure huntasuna eta emazu eni ukhan beharduana. - Ba, ene semia, erranzien aitac, hic nahucan bezala. Gachtobat hiz eta izain hiz gaztigatia". Gero tiranta bat idokitziarekin, zathituzien bere huntasuna eta hartaz egin zitien bi parte berdinac.

2. Egun gutin burian, seme gachtua yuanzen herritic egitian fierraindaco eta nehori adioric erran gabe. Pasatu zitien hanitz larre, oihan eta hur eta yin zen hiri handibateat, nun gastatu baitzien bere dihuru guzia. Zonbait hilabeten burian, behar izan zitien saldu bere hatiac emazte zahar bati eta yarri sehi: igorri zuten landetat astuen eta idien zaintzera.

3. Ordian, unsa maluros izan zen. Etzien gehio oheic lo egiteco, ez suric berotzeco hotz egiten zienian. Zonbait aldiz gosia hain handi zien nun yain baitzitien, urdec yaten dituzten aza osto eta fruitu usteldu hec; bainan nehoc etziacozien emaiten deuse.

4. Atsalde batez, sabela hutsic, utzi zien bere buria erortzera alkhi baten gainera, sogitian leihotic chorier, zoin airatzen baitziren ahinski. Gero ikusi zitien agertzen zelian ilhargia eta izarrac eta erran zien bere buriari nigar egitiarekin: "Han, ene aitain etchia muthilez bethia da, zoinec baitute ogi eta arno, arrultze eta gasna nahidien bezambat. Dembora berian ni hemen gosiac hiltzenic.

5. Beraz chutituconuc, yuain nuc ene aitaren hatzemaïtera eta erraen diacoat: "Bekatubat egin nien, zureganic urrundu nahi izan nenian. Oben handia ukhan nizin eta behar nuzu gaztigatu badiakizut hori unxa. Enezazula gehio izenda zure semia. Trata nezazu zure sehietaric menosena bezala. Obendun izan nintzan, bainan zure ganic urrun hurtzen ari nintzan".

6. Aita bere baratzian zen, bere lilien ihistatzia akabatzen ziela; bisitatzen zitien sagar onduac eta mahaxac. Ikhusi senian yiten bidiaren gainian bere semia izerdiz eta erhaüxez estalia, zangoua errestan, doï doya sinhexi ahaltzin. Galdegin zien bere buriari gaztigatu behar zienez ala barkhatu behar zaconez. Askenian, nigarra begietan, hedatu zazcon besuac eta haren lephora bere buria botatzian eman ziacozun pot handi bat.

7. Gero yar aazi zien bere semia; deithu zitien bere yendiac eta aüzuac: "Nahi dut maitatu, lehen bezala, ene haür gaichua errantzien bildu zireneco. Izan duzu aski gaztigatia; nehorke eztezacola egin orai erreprotchuric batere. Zaurte hunen ikhustera; ekharrakozie fite camisola pollit bat; ezarrakozie ehaztun bat ehian eta zapata berriac hoinetan. Hartzen ahal tuzie ere oillarrac, ahatiac eta ekhartzen ahatche bat hiltzeco hun dena: elgarrekin yanen, edanen eta besta handibat eginen dugu".

8. Sehiec obeditu zuten bere nausia eta ezari tafailla eder bat mahiaian gainian. Ichtant berian, seme gehiena itzultzen zen ihizitic bere chakhurrekin. "Zer da beraz azantz hori? oihu egintzien yuramenduka. Iduri zaüt cantatzen ari zieztela hemen; etzu goïzegi itzulnain. Ehotia zirea aita?

9. Ez, ene semia, ez nuc hala, ihardexizien zaharrac. Haü egintendiat zeren bainiz boscarioz bethia. Cantatzendiaü eta uros gituc ezic badian zertaz. Nahi ala ez, hic ere beharcoduk cantatu eta bozcariatu gurekin zeren eta hire anaia, zoin baitzen hila, phistu beita; doi doia sortubaliz bezala duc; atzo galdia zucan, egun horra berriz hatzemana.

Observations

1. Toutes les lettres se prononcent en langue basque.
2. ***U*** se prononce *ou* comme en espagnol dans la Basse-Navarre.
3. La lettre *"**g**"* a le son dur devant toutes les voyelles et ne se prononce jamais "j".
4. La langue basque n'a pas d'accents; tous les ***e*** sont fermés.
5. La lettre ***z*** se prononce comme *ç*.

Saint Jean-Pied-de-Port, le 31 décembre 1894

L'Instituteur,
Esprabens

1327

ESKUIZKRIBUA IKUSI

Canton de St Jean-Pied-de-Port

Commune de St Jean-Pied-de-Port

Haur prodigua

1. Gizon batec ez zitien bi seme bezic. Gaztenac erran zacon bere aitari: "Ordu da izan nain ene burian nausi eta ukan dezaan dihuria, yuan ahal nain eta bazter ikus dezaan. Sathi zazu zure untasuna eta eman ezaazu ukan behautana. - Ba, ene semia, erran zien aitac, hïc nahucan bezala. Gachto bat hiz eta gaztiatia izain hiz". Gero, tianta bat idokitziarekin, satitu zien bere untasuna, eta hartaz ein bi parte berdinac.

2. Egun gutin burian, seme gachtua yuan zen herritic dena fantesia eta nehori adioric erran gabe. Pasatu zitien hanitz larre, oihan eta hur, eta yin zen hiri haundi bateat, nun empleatu baitzien bere dihuru guzia. Zembait hilaiten burian saldu behar izan zitien bere arropac emazte zahar bati eta yarri sehi; igorri zuten landetaat astuen eta idien han zaintzea.

3. Ordian, untsa maluros izan zen; etzien gehio oheic lo iteco ez suric berotzeco hotz iten zienian. Batzutan hain gose haundia zien nun yain baitzitien urdec yaten dituzten aza osto eta fruita usteldiac, bainan nehoc ez zacon deus emaiten.

4. Atsalde batez, tripa hutsa, utzi zien bere buria erortzea alki baten gainea, leihotic so iten ziela ahinki airian zuatzin chorier. Gero ikusi zitien agertzen zerian ilhargia eta izarrac, eta erran zien bere buriari nigar iten zielaic: Hantche ene aitain etchia, mutilez betia duc zoinec baitute nahuten bezambat ogi eta ano, arrultze eta gasna. Dembora berian ni hemen gosiac hiltzen ari nic.

5. Arren yeikico nuc, yuain nuc ene aitain harrapatzea eta errain diacoat: Bekatu bat in nien zure ganic urrundu nahi izan nienian. Oben handia in nizin eta behar nuzu gaztigatu, badia kizut. Enezazula gehio izenda zure semia. Atchic nezazu zure sehietaic azkena bezala. Obendun izan nintzan, bainan zure ganic urrun hurtzen ari nintzan.

6. Aita bere baatzian zen bere lilien ihiztatzia akabatzen ziela; sahar onduac eta mahatsac ikertzen zitien. Ikusi zienian bere semia bidiaren gainian izerdiz eta errautsez arrunt estalia, zangua herrestan zaramala, doi doia sinetsi zien. Bere baitan erran zien behar zienez bere semia gaztiatu ala behar zacon barcatu... Azkenian, nigarra begitan, besuac hedatu zazcon eta bere buria botatzen ziela haren lepoa, pot haundi bat eman zacon.

7. Gero yar aazi zien bere semia; galdin zitien bere sehiac eta auzuac: "Nahi dut maitatu lehen bezala, gaicho haurra, erran zien bildu zien bezen fite; aski gaztiatia izan da; nehorc ez dezacola orai erran gaizkiric batere. Zaurte hunen ikustea; ekaazkozie fite camisola pollit bat. Oilarrac eta ahatiac ere hartuco ahal tuzie eta ekarrico hiltzeco hun den aatche bat: elgarrequin yanen, edanen eta besta haundi bat inen duu.

8. Sehiec obeitu zuten beren nausia eta ezarri tafailla eder bat mahian gainian. Ichtant berian seme gehiena itzultzen zen ihizitic bere chacurrekin: "Zer da beraz azantz hori? Oihu in zien yuramentuca. Iduri zaut kantuz ari zieztela hemen; Ez da sobera goiz itzul nain. Ehotia zirea, aita?".

9. "Ez, ene semia, ez nuc hala, errepostu eman zien aita zaharrac. Bozcarioz betia nizalacotz iten diat hola. Kantuz ari gituc eta uros gituc ceren baituu arrazoina. Nahi ala ez, hic ere in beharco duc cantu eta gurekin alegeratu, zeren hire anaia hila zena phiztu baita: Doi doia sortu baliz bezala duc: atzo galdia zucan, egun horra berriz harrapatia".

(traduit par M. Haramburu, conseiller municipal)

1328

ESKUIZKRIBUA IKUSI

Canton de St Jean-Pied-de-Port

Commune d'Ahaxe-Alciette-Bascassan

Haour prodigoa

1. Guiçon batec etcicin bi seme baicic. Gastenac erran ciacoçoun bere aitari: "Ordou douçou naousi içan naïn eta diouria oukhan deçaan. Joan behar dicit eta baster ikhousi. Pharti çacou çoure ontasouna, eta eman eçaaçou yiten çaana. - Ba, ene semia, erran cicin aitac, nahoukan beçala. Gastobat hiz eta pounitia içain hiz". Eta guero tienta bat ideki eta, bere ontasouna phartitou cicin bi pharté berdinetan.

2. Handic cembaït egunen bourian seme gaichtoa youan çouçoun herritic, fieraren iten ciela, nehori adio erran gabe. Pasatou citcin anhitz larre, oïhan, erreka, eta heldou çouçoun hiri handi baterat noun despendiatou baïtcien bere dihourou goucia. Cembaït hilabeteren bourian, behar oukan citcin saldou bere phildac emaste sahar bati eta berac sehi yarri: igorri cicien landaat astouen eta idien çaïn.

3. Ordian, biciki malouros içan çouçoun. Etcicin guehio oheric atsian lo iteco, ez souic berotceko hotz cenian. Cembait aldi hoïn gose cicin, non yanen baïtcitien cherriec yaten ditousten aça osto eta froutou ousteldouac: bainan nehoc ere etciacoçun deusere emaïten.

4. Atz batez tripa houtsa, outci cicin bere bouria erortcera eskabela baten gagnera, soiten cielaïc ahinzki hegaldaca çaïltçan chorier. Guero ikhousi citcin aguertcen cerian arguiçaitia eta içarrac eta bere bouriari erran cicin nigarrez ari celaric: Hantchetan ene aitaren etchia bethia da sehiz, çoinec baïtitouzte ogui eta ano, aroltce eta gasna nahoutena. Dembora hortan, ni gosez hiltcen ari niz hemen.

5. Ebien, yeikiko niz, yoanen niz nere aitaren ganat eta erranen dacot: Bekhatou bat in nicin çou kitatou nahoukan cintoualaric. Ontsa oben oukhan nicin, behar nouçou pounitou bacikiçout. Eneçaçoula guehio deïth çoure semia, trata neçaçou çoure sehietaric oundarra beçala. Obendoun içan nouçou, baïnan sofritcen nicin çoure ganic ourroun.

6. Aïta bere baatcian çouçoun, bere liliac ihiztatouric: bisitatcen citcin bere sahar ondouac eta mahatz ondoac. Ikhousi cienian bidian heldou bere semia icerdiz eta heraoutsez dena estalia, çangoua herrestan, doï doïetaric eçaoutou cicin. Bere bouriari galdin cicin behar cienez houra pounitou ala barkhatou behar çacon. Askenian niarra beguietan, besouac çaaldou çazkotçoun, eta lephotic lotcen çakolaïc pot bat eman çakoçoun.

7. Guero yarraaci cicin bere semia, bildou citcin bere serbitchariac eta aouçouac, eta erran ciaçoçun: "Nahi dout maïtatou aïtcinian beçala haour gaïcho haou. Içan da aski pounitia; nehoc ere esteçakola guehio erreprotchouric in. Çaourte haren ikhoustera ekhar akocie fite bezti pollit bat, eçar akocie erhaztoun bat ehian eta çapata berri batçou çangouetan. Hartcen ahal toucie cembaït oillar eta ahate, eta ekhartcie ahatche guicen bat: behar douou edan, yan elgarrekin, eta besta handibat in".

8. Sehiac naousiaren maniac in citcien eta eçarri citcien tafailla eder bat mahaïnian. Memento berian seme guehiena heldou çouçoun ihicitic bere chakhourrekin. "Cer da haborotz haou? oïhou in cicin youratouz. Ouste dout yostatcen ciesten hemen, eniz goïtche yiten. Ehotou cirea aita?".

9. Ez ene semia enouc ehotou, erresponditou çakoçoun saharrac. Hola iten baout, iten diat content niçalakotz. Khantouz ari guitouc, eta houros guitouc arraçoinekin. Nahi ala ez, hic ere beharcoouc kantou in eta alegueratou gourekin, ceren eta hire anaïa hila cena phiztou den. Berriz sorthou baliz beçala douc: atso galdia çoukan, egoun aldis hara nounden atsemana.

L'Instituteur,
Oilloquy

1329

ESKUIZKRIBUA IKUSI

Canton de St Jean-Pied-de-Port

Commune d'Aïncille

Haur prodigua (enpoiltzalia)

1. Gizon batec ez zituen bi seme bezic. Gaztenac erran zacon bere aitari: "Orduizi izan nadien neure buriaren nausi eta ukhan dezadan dihuru; yuan ahal nadien eta ikhus dezadan lekhu. Zathi zazu zure huntasuna eta eman ezaazu eni ukhan behar duana". Ba, ene semia, erran zien aitac: hic nahicocan bezala. Gachto bat hiz eta izanen hiz gaztigatia. Gero idokitziarekin tiranta bat zathitu zien bere huntasuna eta egin zitien hartaz bi farte berdinac.

2. Egun gutin burian, seme gachtua yuan zen herritic egitian fantesuntziaina eta nehori adioric erran gabe. Phasatu zitien bestaldeat anhitz larre, oihan eta hur eta yintzen hiri handi batera, nun gastatu baitzien bere dihuru guzia. Zonbait ilhaiten burian, saldu behartu zitzazcon bere arropac emazte zahar bati eta yarri sehi: igorri zuten alhorretat han zaintzera astuen eta idien.

3. Ordian izantzen arras maluros. Etzien gehio oheric lo egiteco, ez suric bere berotzeco hotz egiten zienian. Zonbait aldiz bazien gosia hain handi nun yain baitzitien cherriec yaten dituzten aza osto eta fruitu usteldu hec: bainan nehoke etziacozien emaiten deuse.

4. Arraxalde batez, sabela huxic, utzi zien bere buria erortzera alkhi baten gainera, so egitian leihotic chorier zoin airatzen baitziren ahinzki. Gero ikhusi zitien zerian agertzen ilhargia eta izarrac eta nigar egitian errantzien bere baithan: "Han, ene aitaren etchia bethia duc muthilez zoinec baitute ogi eta ano, arrultze eta gasna nahi dien guzia. Denbora berian gosez hiltzen ari nuc hemen.

5. Beraz chutituco nuc, yuainuc ene aitaren hatzemaitera (kausitzera) eta erranen diakoat: Egin nizin bekhatu bat zu utzi nahi zintudanian. Hoben handia ukhan nizin eta behar nuzu gaztigatu, baziakizut hori unxa. Ez nezazula deitha gehio zure semia. Trata nezazu zure sehietaric menosena bezala. Izan nintzan hobendun, bainan piruntzen (hurtzen) ari nintzan zure ganic urrun.

6. Aita bere baratzian zen, bere lilien hurtatzia akhabatzen ziela: bisitatzen (miratzen) zitien sagar onduac eta mahaxac. Ikhusi zienian yiten bidiain gainian bere semia estalia guzia izerdiz eta erhauxez, zangua herrestan, doi doia sinhexi zien hura haren semia zela. Erran zien bere baithan behar zienez hura gaztigatu ala behar zacon barkhatu. Azkenian, nigarra begietan, hedatu ziazcozun besuac eta bere buria botatzen zielaic haren lephora eman ziacozun pot handi bat.

7. Gero yar arazi zizin bere semia; deithu zitzin bere yendiac eta auzuac: "Nahi zit maithatu, lehen bezala, ene haur gaichua, erran ziezun bildu ziren bezain laster. Aski gaztigatia izan duzu. Nehoke eztezacola egin orai erreprotchuric batere. Zaurte hunen ikhustera; ekharracozie behala barneco gaineco po-illit bat; ezarracozie ehaztun bat ehian eta zapata berriac hoinetan. Hartzen ahal tuzie ere oillarrac, ahatiac eta ekhartzen ahatche bat hiltzeco hun dena: edanen, yanen diziu elgarrekin eta eginen besta handi bat.

8. Sehiec obeditu zizien beren nausiari eta ezarri zizien tafaila eder bat mahiain gainian. Ichtant berian seme gehiena itzultzen zen ihizitic bere chakhurrekin: "Zer da beraz azantz hori? oihu egin zien yuramentuca. Iduri ziazu cantatzen duziela hemen; etzu goizegi itzulnadin. Ehotu zirea, ene aita"?

9. "Ez, ene semia, eznuc hala, ihardexi zien zaharrac. Bozcalentziaz bethia nizalakotz egiten diat hola. Cantatzen diau eta uros gituc, ezic badiau zertaz. Nahi ukhan dezakan ala ez, beharkoc hic ere cantatu eta bozcariatu gurekin, zeren eta hire anaya zoin baitzen hila phiztu baita. Orai berian sorthu balitz bezalauc: atzo galdia zucan; egun horra nun den berriz hatzemana".

M^{in} Inchauspé

Observations ou explications

Dans le basque, toutes les lettres se prononcent: Ainsi ***au*** se prononce *a-ou*; **ai** = *a-i*. Exemples: *haur* = *ha-our; aita* = *a-i-ta*. Tous les ***e*** sont fermés, mais ne prennent point d'accent. L'***u*** se prononce *ou* en Basse-Navarre. Le ***g*** a le son dur même devant les voyelles *e, i*. Ainsi ***ge*** et ***gi*** se lisent *gue*, *gui*. La lettre ***z*** = *ç*. ***Ain*** ne se prononce jamais *ein*. ***En*** ne se lit pas *an*; il se prononce comme dans le latin am*en*. ***In*** n'est jamais *ein*: il se lit comme dans le latin *in* memoria, *in* extenso, *in* secula..., soit au commencement, soit dans le corps, soit à la fin du mot. ***Oin*** = *o-in*. La lettre ***h*** est toujours aspirée.

1330

ESKUIZKRIBUA IKUSI

Canton de St Jean-Pied-de-Port

Commune d'Aïnhice-Mongelos

Haour barréatia[1]

1. Guiçon batéc etcién bi sémé baïcic. Gaztéénac erran çacon aïtari: "Ordou da éné naoussi içan nadin éta oukhan déçadan dirou. Béhar nouqué yoan éta ikhoussi lékhou. Çathi çaçou çouré ontassouna, éta éman éçadaçou heldou çadana. - Baï, éné sémia, erran cién aïtac, nah[i d]oucan[2] beçala. Gachtaguin bat hiz éta gaztigatia içanén hiz". Guéro çabaltcén ciélaric tiadér bat, çathitou cién béré ontassouna éta hartaz éguin bi çathi bardinac.

2. Hantic égoun goutién bourian sémé gachtoa yoan cén herritic éguinéz éhoaïna, éta erran gabe adio néhori. Iragan citién hanitz larré, oïhanac, our handiac, éta yin cén hiri handi batéra, non chahoutou béitcién béré dirou goucia. Hilabete çombaïtén bourian, saldou béhar içan citién béré phildac émazté chahar bati éta bérac mouthil yarri: igorri çoutén landétarat astoén éta idién çaïntcera.

3. Ordian biciki dohacabé cén. Etcién guehiago ohéric lo éguitéco gaouaz, ez souic hotz éguitén ciélaric bérotcéco. Haïn gossé handia cién çombaït aldiz non yanén béitcitién gogotic aça osto éta frouta oustéldou ourdéc yatén douztén hec; baïnan néhorc étçacon déoussic émaïtén.

4. Arrats aldi batéz, sabéla houtsic, béré bouria outci cién érortcéra alkhi batén gaïnéra, so éguitén ciélaric léihotic chorier, çoïnac hégaldatcén béitcirén arhinki. Guéro ikhoussi citién aguértcén cérouan ilharguia éta içarrac, éta erran cién béré bouriari nigarréz: "Hanchet, éné aïtarén étchia béthia da séhiz çoïnec baïtouté ogui éta arno, arraoultcé éta gasna, nah[i d]outén[3] béçaïn bat. Démbora bérian, ni, gosséarékin hiltcén niz hémén.

5. Eta arrén, yéikico nïz, yoanén niz aïtarén caoussitcéra éta érranén dacot: "Éguin nicin békhatou bat outci nahi içan cintoudalaric. Obén handia içan nicin, éta béhar naouçou gaztigatou, hori ongui badakiçout. Énéçaçoula déith guéhiago çouré sémia, ékhar néçaçou çouré azquén mouthila béçala. Obéndoun bilhacatou nindouçoun, baïnan éïhartcén nindouçoun çoutaric hourroun".

6. Aïta béré baratcian cén béré liliac hourstatouric: so çagon béré sagar ondo éta mahatsér. Ikhoussi ciélaric yitén bidian béré sémia goucia éstalia icérdiz éta érhaoutséz, hérréstan çangoa, néquéz hori sinhétsi ahal içan cién. Béré

---

[1] Pour la prononciation, voir une note à la fin.
[2] Dans le langage parlé on supprime ces deux lettres entre crochets.
[3]. Les deux lettres entre crochets ne se prononcent pas.

bourouarékin[4] éguin cién béhar othé cién gaztigatou édo béhar çacon barkhatou.... Azquénécoz, nigarrac béguian, hédatou ciozcan bessoac, éta yaouciric léphora éman çacon pot handi bat.

7. Guéro yar araci cién béré sémia; déithou citien béré etchécoac éta aoçoac: "Nahi dicit maïthatou léhén béçala, haour gachoa, erran ciotén bildou cién béçaïn lastér. Aski gaztigatoua içan douçou: néhorc éztéçola oraï érran gaïzkiric batéré. Çaouté hounén ikhoustéra; ékhar éçocié béhala chamar pouillit bat, éçarcotcié érhaztoun bat érhian éta çapata bérriac oïnétan. Hartcén ahal éré toutcié oïllarac, ahatiac, éta ékhartcén aratché bat hiltcéco on déna: édanén dougou, yanén élgarrékin éta éguinén bésta handi bat".

8. Mouthiléc éguin çoutén naoussiarén érrana éta éman çoutén dafaïla édér bat mahaïarén gaïnéan. Ordou bérian, sémé guéhiéna itçoultcén cén ihicitic béré chakhourékin: "Cér da bada harraots hori? érran cién oïhouz arnégouca. Ousté dout khantouz ari ciztéla hémén; ézta goïcégui itçoul nadin. Éhotia ciréa, éné aïta?

9. - Éz, éné sémia, énouc hala, érépousta éman çacon çaharrac. Hori éguitén badiat, aléguérantciaz béthia niçalacoz douc. Khantouz ari guitouc éta bozcarioan guitouc, cérén baïtougou ongui certaco. Nahi édo éz, béharco douc khantatou hic éré éta aléguératou gourékin, cérén éta hié anaïa, çoïna hila baïtcén, bérriz yin douc bicirat. Oraï sorthia baliz béçala douc: atço galdia çoucan, égoun horra non dougoun hatcémana".

T.S.V.P.

Pour lire la traduction ci-dessus, se conformer aux observations suivantes:
1° Tous les e, sans exception, sont, en basque, des é fermés.
2° Le h est toujours aspiré.
3° La consonne s, simple ou redoublée, se prononce comme le s espagnol.
4° z se prononce comme ç.
5° Les voyelles nasales an, en, in, on se prononcent toujours comme en espagnol, c'est-à-dire qu'elles doivent se prononcer ane, éne, ine, one, mais la voyelle finale (e) étant complètement muette.
6° y se prononce comme un d mouillé.

Note sur la traduction. J'ai traduit d'abord le morceau moi-même. Ensuite j'ai lu la traduction quatre fois devant plusieurs personnes de la commune, en la corrigeant chaque fois suivant leurs observations. Enfin je l'ai lue à une personne âgée n'ayant jamais quitté la commune et réputée comme parlant très bien le basque; celle-ci n'a plus trouvé rien à changer. J'ai donc la certitude que le basque que j'ai écrit est bien celui qu'on parle dans la localité.

Ainhice-Mongelos, le 9 décembre 1894

---

[4]. Il faut bouriarékin: bourouarekin, écrit ici par erreur, se dit dans le Labourd.

L'Instituteur,
M. Beignatborde

1331

ESKUIZKRIBUA IKUSI

Canton de Saint-Jean-Pied-de-Port

Commune d'Arnéguy

Haur prodigua
(L'enfant prodigue)

1. Gizon batec ez zuen bi seme baizic. Gaztenac erraiten du bere aitari: "Ordu du izan nadin neure nausi eta izan dezatan diru. Behar dut kurritu eta leku ikhusi. Parti zazu zure ontasuna, eta eman eni, izan behar dutana. - Bai, ene seme, dio aitac; nahi dukan bezala. Gaichto bat hiz eta izanen hiz gaztigatua". Gero tiranta idokiric, partitzen du bere ontasuna eta egiten bi parte berdinac.

2. Egun gutien ondotic, seme gaichtoa, gan zen herritic eginez fierra eta nehori adio erran gabe. Kurritu zituen hanitz landa, oihan, hur handi eta heldu hiri handi batetala, nun gastatu baitzuen bere diru guzia. Zonbait ilabeteren burian, behar izan zituen saldu bere arropac emazte zahar bati eta akordatu muthil izaiteco: igorri zuten alhorretalat asto eta idi zain.

3. Ordian, izan zen arras maluros. Ez zuen geihago oheric lo egiteko gaüaz, ez eta suric berotzeko hotz egiten zuelaric. Hain zen zonbait aldiz gose handian, nun gootic yanen baizuen aza osto eta fruita usteldu yaten tuztenac urdec; bainan nehorc ez zaïon deuse emaiten.

4. Arrats batez, tripa hutsa, erori zen alki baten gainera, so eginez leihotic, choriac hegaldaka arinki. Gero ikusi zuen agertzen zeruan ilargia eta izarrac eta berari erran zuen nigarrez. Han, ene aitaren etchia bethia da muthilez zoinec baitute ogi eta arno, arroltze eta gasna, nahi duten bezanbat. Denbora berian, ni hiltzen niz gosez, hemen.

5. "Eh bien! yekico niz, yuanen niz aitaren ganat eta erranen diot: Egin nuen bekatu, nahi ukhan nuenian zu kitatu. Oben handi ukhan nuen, eta behar nauzu gaztigatu, badakit untsa. Ez nezazulu geihago deit zure semia, trata nezazu zure muthiletaric azkena bezala. Obendun nintzan, bainan izigarri sofritzen nuen urrun zutaric".

6. Aita zen bere baratzien, akabatzen lilien hurtatzia: so zagon, sagar onduer eta mahatser. Ikhusi zuenian yiten, bide gaïnen bere semia izerdi eta erhautsez estalia, zangua terrestan, doi doya sinhetsi ahal ukhan zuen. Bere buriari galdetu zuen behar zuen gaztigatu edo barkhatu. Gero nikarrac begietan, besoac aitzinatu zituen eta iraganez lephora, eman zakon pot gizen bat.

7. Gero, yar arazi zuen bere semia; deitu zituen etcheco yendiac eta auzuac: "Nahi dut maitatu lehen bezala, gaicho haurra, heri erran zuen, bildu zien bezain

laster. Aski gaztigatua izan da: nihorc ez dezakon orai egin batere erreprotchuric. Zaurte haren ikhusterat; ekarrazakozié fite palto pollit bat, ezarrakozie eraztuna erhian eta zapata berriac zanguetan. Hartzen ahalko duzie ere oillarrac, ahatiac, eta ekartzen aatche bat huna hiltzeko: edanen dugu, yanen dugu elgarrekin eta eginen besta handi bat".

8. Mutilec obeditu zuten nausiari eta ezarri tafaila ederra mahainaren gainen. Memento berian, primia heldu zen ihizitic chakurrekin: "Zer da azantz hori? oihu egiten du sakreka. Iduri zaut kantuz ari zieztela hemen; ez da goizegi itzul nadin; errotu zirea, aita"?

9. Ez, ene semia, ez nuc hala, errepostu aita zaharrac. Egiten badut hori, alegrantziaz bethia bainiz. Kantuz ari gira eta uros gira, baitugu zer. Hic nahi edo ez beharco duc khantatu eta alegrantziaz bete, zeren hire aneya hil dena, phiztu baita. Orai sortu balitz bezala duc: atzo galdia zukan, egun horra berriz bildia".

Elissagaray

Nota

L'orthographe a été respectée. Aussi:

1° toutes les voyelles doivent être décomposées;
2° en = in; g = gue; ll = ill;
3° u = ou; z = ç; e = é = è = ê;
4° s = ch gras (ce son n'existe pas en français).

Pour la traduction, le mot à mot du morceau a été suivi. Dans le basque usuel, les inversions sont plus fréquentes.

1332

ESKUIZKRIBUA IKUSI

Canton de St Jean-Pied-de-Port

Commune de Bussunarits-Sarrasquette

Haur prodigua

1. Gizon batec ez zuen bi seme baizic. Gaztenac erraiten dio bere aitari: "Ordu da nausi izan nadien eta izan dezadan sosa. Behar nukhe yuan eta lekhuac kurritu; zatikha zazu zure ontasuna eta emadazu ene partia. - Bai, ene semea, dio aitac; nahi dukan bezala; gaichtagin bat hiz eta gaztigatua izanen hiz". Gero aitac zabaldu eta tirant bat zatitu zuen bere ontasuna eginez bi parthe bardinac.

2. Handic zonbait egunen buruan seme tzar hura yoan zen bere herritic fierraena eginez eta nehori ere adioric egin gabe. Khurritu zituen haitniz landa, oyhan, hur alde eta gero erori zen hiri handi batetarat nun despendiatu baitzuen bere sos guzia. Zombait ilabeteren burian, saldu zituen bere phildac atso zahar bati eta behar izan zuen sehi yarri: igorri zuten landetarat idi eta asto zain.

3. Orduan izan zen maluros. Ez zuen oheric gauaz, ez suric hotz zelaric. Batzutan hain gose zen nun yanen baitzuen gogo hunez cherrieri emaiten den aza osto eta fruitu usteldu hetaric; bainan nehorc ez zion deusere emaiten.

4. Arrats batez, tripa hutsic, uzten du bere burua erortzerat alki baten gainerat, soiten duelaric leiotic choriac airian. Gero ikhusten du zeruan ilhargia, izarrac eta bere buruari dio nigarrez: Han, ene aitaren etchea bethia da sehiz zoinec baitute ogi eta arno, arroltze eta gasna nahi duten bezenbat. Eta ni ber demboran, gosia nago hemen.

5. Eh bien, yeikiko niz, yuanen niz ene aitaren ganat eta erranen diot: Bekhatu egin nuen, zu kitatuz; hoben izan dut; behar nauzu gaztigatu, hori badakit. Ez nezazula gejago ni deit zure semea; trata nezazu zure azken mutila bezala. Hoben izan nuen, bainan peritzen nintzan zure ganic hurrun.

6. Aita bere baratzian zagon, lili arrosatzen, bere sagar eta mahatseri beha. Ikhusi zuenian bidian heldu bere semea izerdiz eta errautsez bethea, tiraka heldu, ez zezaken sinhets. Bere baitan ari zen eyan behar zuenez gaztigatu edo barkhatu... Askenian, nigarrac begian, hedatzen ditu bere besoac, lotzen saio semeari lephotic eta emaiten dako pot handi bat.

7. Gero yarrarazten du bere semea oihu egiten du bere yenderi eta bere auzueri: "Nahi dut maitatu ene semea lehen bezala, dio aitac, denac bildu direlaric. Aski gaztigatua izan da; nehorc ez dezakola mehatchuric egin. Zatozte ikhusterat; ekhar zakozue kamisola eder bat; emakozue eraztun bat erian, zapata berriac

oinetan. Hartzen ahal dituzue ere oilhar eta ahate, ekhar zazue ahatche hun bat hiltzeko. Yan eta edan behar dugu guziec elgarrekin eta besta handi bat egin.

8. Sehiec obeditu zuten nausiari eta ezarri tafaila eder bat mahainaren gainean. Memento berean, heldu da seme zaharrena ihizetic bere chakhurrekin: "Zer dira azantz horiec, erraiten du, sacre batekin. Uste dut khantuz ari zieztela. Ez da goizegi itzul nadien. Errotu zirea ene aita"?

9. "Ez, ene semea, ez nuc errotu, dio aita zaharrac. Hori egiten badut, egiten diat alegera nizalakotz. Khantuz ari gituc eta uros gituc eta badiagu arrazoin. Hic nahi edo ez, beharko duc hic ere khantatu eta alegeratu gurekin zeren hire anaya hila baitzen eta phiztu baita. Berriz sorthu balitz bezala duc; atzo galdua zukan, egun arrapatu diagu".

L'Instituteur de Bussunarits,
G. Elissagaray

1333

ESKUIZKRIBUA IKUSI

Canton de Saint-Jean-Pied-de-Port

Commune de Bustince Iriberry

Haour onthasoun chahouçaïlèa

1. Guiçon ([1]) batèk étcièn bi ([2]) sèmè bécik. Gazténak ([3]) erraïtèn dako aïtari: "Ordouïci içan nadïn ènè bouriaïn naousi éta oukhan ([4]) déçadan dihourou. Béhaïcit youaïtéko([5]) ahala éta lékhou ikhoustéko. Çathika çaçou çourè onthasouna éta éman éçadaçou eni hèldou çadana. - Ba, ènè sèmia, erraïtèn dou aïtak; nahoukan béçala. Gaïchto bat hiz éta içaïntz gaztigatia". Guio çabaltcèn cièlaïk tièta bat, çathikatou cièn bèrè onthasouna éta éguïn bi çathi berdinak.

2. Egoun goutïn bourian, sèmè gaïchtoua youan cèn herritik bouria goraïk, néhori adioïk (berriz artio) erran gabè. Phasatou cièn anhitz larrè, oïhan, our errèka; éta yïn hiri haoundi batèra, çoïntan chahoutou baïtcièn bèrè sos goucia. Çombaït ilhaïtèïn bourian, bèhartou citçazkon saldou bèrè phildak émaztè chahar bati éta alokaïrian yarri mouthil guisa: igorri çoutèn alhorrètat idièn éta astouèn çaïntcèa.

3. Ordian içantcèn biciki dohakabè. Etcièn oukhan guèhio ohèïk lo itèko atsian, ez souik bèrotcèko hotcènian. Bacièn batçoutan haïn gosè hanoundia noun yaïn baïtcitièn gôtik ([6]) cherrièk yatèn ditouztèn aça osto éta froutou oustèldou hèk; bana nèhok étçakon déousèrè émaïtèn.

4. Gaou batez, sabèla houtsa, outci cèn érortèra alkhi batèn gaïnèa, soïtèn cièlaïk leïhotik chorièri hègaldakatcen ahïnki. Guio ikhousi citièn aguèrtcèn cèrian arguiçaria eta içarrak éta erran cièn bèrè baïthan nigar éguitèn cièlaïk: Han, (hantche) ènè aïtaïn étchia mouthilèz bèthiaouk, çoïnèk baïtoutè oguia éta anoua, arroultciak éta gasna, nahoutèn béçambat. Dèmbora bèrian, ni, hiltcèn nouk gosèz hèmèn.

5. "Bèraz choutitouko nouk, aïtaïn khaousitcèa youaïn nouk éta èrraïn diakoat: Eguin nicïn bèkhatou bat, noïcère nahi oukhan cïntouanian dèspèïtou. Oguèn haoundia oukhan nicin, éta bèhar nouçou gaztigatou baciaïçout ountsa. Enèçaçoula deïth guèhio çourè sèmia, har nèçaçou çoure azkèn mouthila bèçala. Oguèndoun içan nouçou, bana hourtcèn aï nïndouçoun çoutaïk ourroun".

6. Aïta bèrè bâtcian cèn lilièn ihiztatcèn akhabatcèn ari: ikhouska çabilan bèrè sagartcèn éta mahatsèn. Ikhousi ciènian yiten bidiaïn gaïnian bèrè sèmia icèrdiz éta èrhaoutsez èstalia, çango bat herrèstan doï doïa sïnhètsi cièn. Bèrè baïthan erran cièn bèhar ciènèz gaztigatou ala bèhar çakon barkhatou... Azkènian, nigarrak bèguiètan, hèdatou çazkon bèsouak éta yaouciten çakolaïk lèphora éman çakon pot haoundi bat.

7. Guèro yarraraci cièn bèrè sèmia; deïthou citièn ètchèkouak éta aouçouak: "Nahiout maïthatou lèhèn bèçala, gaicho haourra, erraïtèn dê bildou cien bècèn lastèr. Içan da, aski gaztigatia; nèhok ez dèçakola ouaï gaïzkirik batrè erran. Çaourtè hounèn ikhoustèa; ékharrakociè bèhala camisola bat pollita ([7]), éçarrakociè erhaztoun bat èhian éta çapèta berriak oïnètan. Hartouko ahal touciè oïlarrak, ahatiak, éta ékharriko ahètchè bat hiltcèko houn dèna: édaïn dougou, yaïn élgarrèkin éta èguinèn bèsta haoundi bat".

8. Mouthilèk éguïn çoutèn naousiak errana éta èçarri çoutèn tafaïla bat édèrra mahaïarèn gaïnian. Ordou bèrian, sèmè guèhièna hèldou cèn ihicitik bèrè chakhourrèkïn. "Cer da bèraz açantz hori? oïhou èguitèn dou youramèntouikïn. Idouri çaout khantouz ari cièztèla hèmèn: ezta goïceï yïn naïn. Erhoua cirèa ènè aïta"? [ehotou].

9. "Ez, ènè sèmia, ènouk hala, ihardestèn dako çaharrak. Hori itèn baout, itèn diat bozkarioz bèthia niçalakouan. Ari guitouk khantouz éta dohatsou guitouk, écik badiaou ountsa certaz. Nahi baouk éta ez, bèharkôouk khantou ïn hik èrè éta bozkariatou gouèkïn, cèrèn hirè anaïa hila cèna phiztou douk (bicirat itçouli douk). Sorth bèrri bèçala douk; atço galdia cian, ègoun horra hatcèmana".

L'Instituteur,
Jean Curutchet

Notes

Le basque a été écrit tel qu'il est parlé dans la commune.

I. ***on, en, an, in, aïn, oun*** placés à la fin des mots se prononcent *one, ène, ane, ïne, aïne, oune*.
II. L'***s*** se prononce comme *j* ou mieux comme le *"s"* gras espagnol.
III. Le ***"z"*** se prononce comme *s* ou *ç*.
IV. Le ***h*** est toujours aspiré.
V. L'***y*** se prononce en appuyant le bout de la langue contre les dents et le palais autrement comme *ill*.
VI. Le ***l*** est mouillé dans *ll*.
VII. L **^** sur *a, o, e*, indique que la voyelle est longue.

1334

ESKUIZKRIBUA IKUSI

Canton de St-Jean Pied-de-Port

Commune de Çaro

Haur prodigua

1. Gizon batec bazitien bi seme. Gaztenac errantzacon aitari: "Ordu dizi izan nadin nihauren nausi eta ukhan dezadan dihuru. Yuan behartzit kartier ikhustera. Phartizazu zure huntasuna, eta eman eni neure lejitimua. - Ba, ene semia, errantzien aitac; nahucan bezala. Gaichtobat hiz eta izain hiz gaztigatua". Gero, idokitzenzielaric tirentabat, phartituzien bere untasuna eta intzitien hartaz bi porzione bardinac.

2. Hantic fite, seme tzar hori yuantzen herritic iten zielaric fierrarena, eta nehori adioric erran gabe. Trebesatu zitien landac, oyhanac, uhaitzac, eta yintzen hiri handi batera, nun impoïldu beitzien bere dihuru guzia. Zombait hilabetheren burian, behar ukhan zitien bere arropac saldu emazte zahar bati eta bortchatia izantzen muthil yartzera: igorri zuten alhorretarat asto eta idi beiratzera.

3. Ordian izantzen maluros. Etzien oheric arhatsetan lo egiteco, ez eta ere suïc hotz zelaric berotzeco. Zombait aldiz haintzen gose, nun yain beitzitien gogotic urdec yaten duzten aza osto eta fruta usteldiac, bena nehoc etzacon deusic emaiten.

4. Ilhuntzebatez, tripa hutsa, utzi zien bere buria erortzera alkhi baten gagnera, soiten zielaric leyhotic ahinki hegaldaca zabiltzan chori batzuri. Gero ikhusi zitien agertzen zeruan argizegia eta izarrac, eta nigarrez zagolaric erreyten zien bere buriarekin: Hantche ene aitaren etchia bethia duc muthilez zoinec baitute ogi eta ano, arroltze eta gasna, nahi duten guzia. Dembora berian ni hemen nuc abantzu gosiac hila.

5. Aski hola! yeikico nuc eta yuain ene aitarengana eta erranen dioyat: Egin nizin bekhatu bat, kitatu zintuanian. Gaizki egin nizin, eta behar nuzu gastigatu, badakizut arraz ontsa. Ez nezazula deit gehiago zure semia, trata nezazu zure azken zerbitcharia bezala. Obendun nintzun, bena zutaric urrun etzuzun enetaco penaric beizic.

6. Aita bere baratzian zen, lilibatzu hurtaturic, bisitatzen zitien memento hartan sagar ondo eta mahats batzu. Ikhusi zienian bere semia bidian oro izerdiz eta erhautsez bethia, zangua ezin yarraikiz, ezin sinhetsiz zagon planta hartan ikhusten ahal zienez. Dudan tzen heya gastigatu behar othe zien ala beharzacon barkhatu... Azkenian, nigarra begietan, bezuac semiaren alderat hedatu zitien eta lephotic besarca hartzen zielaric, eman zacon finki pot gozobat.

7. Gero yarrarazi zien bere semia; deithu zitien bere yendiac eta auzuac eta elgarretarat bilduzirenian: "Nahidut, errantzeyen, maithatu lehen bezala ene haur gaichua. Izan da azki gaztigatua: ezdezacon nehoc in orai erreprotchuric. Zaurthe ikhusazie; ekharracozie yaqueta poillit bat, ezarracozie ehaztun bat erhian eta emazcotzie zapata berriac hugnetan. Hartzen ahal duzie berguisan, oillar eta ahate eta ekharrazie phicatzeco hun den aratchi bat: yanen dugu eta edanen oroc elgarrekin eta eginen phesta handi bat.

8. Muthilec obeditu zuten nausia eta ezarri dahailla eder bat mahagnian. Memento berian, seme gehiena heldu zen ihizitic bere chakhurrekin: zer da azantz ori? oihu egin tzien yuamentu batekin. Uste dizit khantuz ari ziztela heben; Ordu zizin yin nindadin. Ehotia zirea aita"?

9. "Ez, ene semia, enuc hala, errepostu emantzacon zaharrac. Hola egiten diat, zeren beiniz alegrantziaz bethia. Khantatzen diaguc eta uros gituc, ezic badiaguc zertaco. Nahi ala ez, beharco duc hic ere khantatu eta gurekin bozcarioetan sarthu, zeren hire anaya hila zian eta bizirat arra yinduc. Orai sorthia baliz bezala duc: atzo galdia zian, eta egun horra nunden gurekin.

Certifié conforme à l'original
A Çaro, le 18 décembre 1894

L'Instituteur,
Biscay

Notes

L'***u*** se prononce comme *ou*.
La lettre ***h*** est partout aspirée.
Z a le même son que s, en français.
Gn se prononce comme en français, de même que la lettre ***k*** et ***c***.
S doit se prononcer avec un léger sifflement entre les dents imitant quasiment celui du serpent.

1335

ESKUIZKRIBUA IKUSI

Canton de Saint Jean-Pied-de-Port

Commune d'Estérençuby

Haour prodigoua

1. Guiçonn batéc ètcitienn bi sémé baïcic. Gazténac érran çiacoçunn béré aïtari: "Ordou douçou éné bouriaren naousi içan nadiènn éta içan déçatann dihourou. Béharcit mouaïéna youaïtéco éta couartièrrac ikhousi. Pharti çaçou çouré hountasouna éta émadaçou éni tocatcen çaoutana. - Aïtac érraïten daco: "baï éné sémia nahi doucann beçala. Coquïnn bat hizz eta pounitia içanénn hizz". Guéro tirénta bat idoquitcènn cilaric phartitou ciènn béré hountasouna éta éguinn ciènn bi pharté bèrdïnn bèrdinac.

2. Démbora goutirén barniann, haour gachtoua youan cèn hérritic fiérraren éguitén cilaric éta néhori adioric érrann gabé. Phasatou citiènn campo çabal anhitzz, oïhann batçou, hour handi batçou, éta hèldou cènn hiri handi batéra; hann gastatou citiènn béré sos gouciac. Çombaït hilabétérénn bouriann, béhar oukhann citiénn saldu béré arropac émazté chahar bati, éta acordatou mouthilétaco. Igorri çoutènn landétarat astouènn éta idiènn çaïtcèra.

3. Ordiann biciqui malouros içann cènn. Etciènn guéhiago içann ohéric gaouazz ètçatéco, èzz éta souric bérotcéco hotzz cèniann. Batçouétan haïnn gosé handia ciènn nonn yann béitçouzquïn chérrièc yatènn ditouztènn aça osto horic éta frouïtou oustèldou horic, baïnann néhoc étçaconn déous émaïtènn.

4. Atx batézz, tripa houtsic, béré bouria outci ciènn érortcèra alkhi batènn gaïnéra, so éguitènn cérélaric léihotic chorièrr çalhou hégaldatcénn cirénèrr. Guéro aguertcènn ikhousi citiènn cériann arguiçaguia éta içarrac éta érrann ciènn béré baïthann nigarrézz: Béhéré hartan éné aïtarénn étchia séhiz béthia douçou douténac ogui éta ano, arrolcé éta gasna nahi douténa. Arté hortann ni gosiac hila nizz héménn.

5. "Eh biénn, yéïquico nizz, youanènn nizz aïtarènn gana éta érranénn dacot: Békhatu bat éguïnn niènn nahï oukhann cintoudanian quitatou. Oguénn handia içan niènn éta béhar nouçou pounitou, badaquit ountxa. Ezz, néçaçoula guéhiago déïtha çouré sémia, trata néçaçou çuré azquènn séhia béçala. Oguéndun içann nintçan éta sofritcènn nicïnn çoure ganic ourrounn".

6. Aïta baratciann cènn béré liliènn ihiztatcènn finitcènn. So éguiténn cérènn sagar ondoèrr éta mahatxèrr. Ikhousi cilaric béré sémia hèldou bidian icèrdizz éta erhaoutxèzz èstaliric, çangoua hérréstatcénn cila néquétzz sinhétxi ciènn. Gogouann ibili ciénn pounitou béhar cinétzz édo barkhatou béhar çaconnètzz.

Azquéniann nigarrac béguiétann, bésouac çabaldou çazcon éta léphotic hartcènn cilaric pot handi bat émann çaconn.

7. Yarraraci ciènn guéro béré sémia, déïthou citiènn béré étchéco yéndiac éta aouçouac: "Bildou cirélaric érrann cérènn, nahi dicit maïthatou léhènn béçala, gaïcho haourra. Asqui pounitia içann douçou: Ezz déçaconn néhoc éguïn oraï érréprotchouric batéré. Çaouzté ikhoustéra; ékharracocié fité paltto poillit bat, éçarracocié érraztunn bat éhiann éta çapéta bèrri batçou soïniann. Atcémaïten ahal toucié éré oïllar batçou, ahaté batçou éta ekhartcènn aratché bat hilcéco hounn déna: édanènn dougou, yanènn dougou èlgarréquïnn éta bèsta handi bat éguinénn".

8. Cèrbitçarièc obéditou çacotènn bérénn naousiari éta éçarri çoutènn mahico oïhal bat éderra mahiann. Méménto bériann, sémé guéhiéna hèldou cènn ihicitic béré chakhourréquinn. "Arnégouzz ari cèlaric oïhou éguinn ciènn: cèrr da açantzz hori bada. Ousté dicit khantuzz ari çièztènn héménn. Ez douçou goïcégui hèl nadïnn. Erhotia ciréa, éné aïta"?

9. Çaharrac érrésponditou ciènn: Ezz, éné sémia, èzz nizz hala. Bozcariozz béthia béinizz, hortacotzz éguitènn dicit hori. Khantuzz ari guira éta ouros guira écic badicigou cèrènn. Nahi badouc éta èzz badouc béharco douc khantatou hic éré éta aléguératou gouréquïn cèrènn éta hiré anaïa hila céna bèrrizz bici duc. Orai sor balédi béçala douc: atço galdia cènn, horra nounn égounn hatcémana dènn bèrrizz.

Nota

1. Le ***s*** et le ***x*** se prononcent comme en espagnol en refoulant la langue;
2. On appuie sur les <u>doubles</u> <u>lettres</u> <u>finales</u> comme dans les mots français: "spécimen" et "vis";
3. L'***y*** fait comme dans "voyons";
4. Le son ***ph*** est aspiré: on ne dit pas "f";
5. Le ***tt*** est un *t* mouillé.

L'Instituteur public d'Estérençuby (Bourg)
J. B. Landé

1336

ESKUIZKRIBUA IKUSI

Canton de St Jean-Pied-de-Port

Commune d'Ispoure

Haur prodigua (empoilzalia)

1. Guizon batec etzitien bi seme baizic. Gaztenac erran zacon bere aitari: "Ordu da izan nadien ene buriaren naussi eta ukhan dezatan dihuru; yuan ahal nadien hementic eta bazter ikhus ahal dezatan. Pharteca zazu zure ontasuna eta eman ezaazu eni heldu zautana". - "Bai, ene semia, erran zien aitac: hic nahucan bezala. Gachto bat hiz eta gaztiatia izanen hiz". Gero zabaltzen zielaric tienta bat, phartecatu zien bere ontasuna eta eguin zitien bi pharte berdinac.

2. Egun gutien burian, seme gachtua yuan sen herritic dena fantesia eta nehori adioric erran gabe. Passatu zitien bestalderat anitz larre, oihan, hur, eta yin zen hiri handi batera non chahutu (edo igorri) baitzien bere dihuru guzia. Zonbait hilabeteren burian saldu behar ukhan zitien bere arropac emazte zahar bati eta yarri sehi: igorri zuten landetarat astuen eta idien han zaintzera.

3. Ordian (edo han) onxa maluros izan zen; etzien gehiago oheric lo eiteco, ez suric berotzeco hotz eiten zienian. Batzuetan hoin gose handia zien non yan baitzuzken azinda beltzec yaten dituzten aza osto eta fruitu usteldu hec; bainan nehoc etzacon deus emaiten.

4. Arraxalde batez tripa huxa, utzi zien bere buria erortzera (edo yarri zen) zurezko alkhi baten gagnera, leihotic so eiten ziela ahinki airian zoatzin chorier. Gero ikhussi zitien agertzen zerian argizaia eta izarrac eta erran zien bere buriari nigar eiten zielaric: "Hantche, ene aitaren etchia muthilez bethia duc zoinec baitute nahuten bezainbat ogi eta ano, arroltze eta gasna. Denbora berian ni hemen gosiac hiltzen ari nic.

5. Arren yeikiko nuc, yuanen nuc ene aitaren khaussitzera eta erranen diacoat: Bekhatu bat ein nien zureganic urrundu nahi izan nienian. Oben handia ein nizin eta behar nuzu gaztiatu, baziakizut. Eznezazula gehiago deitha zure semia. Atchic nezazu zure sehietaric azkena bezala. Hobendun izan nintzan, bainan zureganic urrun hurtzen ari nintzan (edo biziki sofritzen nien)".

6. Aita bere baratzian zen bere lilien hurtatzia akabatzen ziela: saar ondoac eta mahaxac ikhertzen zitiela. Ikhusi zienian bidiaren gagnian bere semia izerdiz eta erhauxez guzia estalia, zangua herrestan zeramala, doi doia sinhexi zien hura haren semia zela. Bere baithan erran zien behar zienez bere semia gaztiatu ala behar zacon barkhatu. Azkenian nigarra begietan, bessuac hedatu zazcon eta bere buria botatzen ziela haren lephora pot handi bat eman zacon.

7. Gero yar arazi zien bere semia; galdein zitien bere sehiac eta auzuac: "Nahi dut maithatu lehen bezala, gaicho haurra, erran zeen bildu zien bezain laster. Aski gaztiatia izan da; nehoc eztezacola orai ein erreprotchuric batere. Zaurte hunen ikhustera; ekhar acozie laster barneco gagneco poillit bat; ezarzkotzie ehaztun bat ehian eta zapata berriac zanguetan. Oillarrac eta ahatiac ere hartuco ahal tuzie eta ekharrico hiltzeco hun (edo aski gizen den) aetche bat: elgarrekin edanen, yanen eta besta handi bat einen dugu".

8. Sehiec obeditu zuten beren nausia eta ezarri zuten tafailla eder bat mahaiaren gagnian. Memento berian, seme gehiena itzultzen zen ihizitic bere chacurrekin. "Zer da beraz habarrox hori? oihu ein zien yuramentuca. Iduri zaut khantuz ari zieztela hemen; ordu zen naski itzul nindadien. Ehotia zirea aita"?

9. "Ez, ene semia, ez nuc hala, errepostu eman zien aita zaharrac. Alegrantziaz bethia nizalacotz eiten diat hola. Khantuz ari gituc eta uros gituc ezic badiagu arrazoina. Nahi ala ez nahi hic ere ein beharco duc khantu eta gurekin alegeratu, zeren eta hire anaia hila zena phiztu baita: doi doia sorthu balitz bezala duc; atzo galdia zucan, egun berriz idiena duc".

Observations

Toutes les lettres se prononcent dans le basque;
Exemple: *aita* se prononce *a-i-ta; eitia = e-i-tia; zaut = z-a-ut.*
Le ***u*** se prononce *ou* dans la Basse-Navarre;
Le ***g*** a le son dur devant toutes les voyelles et ne se prononce jamais *j*;
Dans le basque, on ne met jamais d'accent sur les ***e***; tous les ***e*** sont fermés;
Le ***z*** a aussi le son dur et équivaut à *ç*.

Epherre-Iriart,
Instituteur

1337

ESKUIZKRIBUA IKUSI

Canton de Saint Jean-Pied-de-Port

Commune de Jaxu

Haur prodigua

1. Guizon batek etzitien bi seme bezik. Gaztenak erraiten dizi bere aitari: "Ordu dizi izan nain neure nausi eta ukan dezan diru. Behar nuzu yuan ahal eta behaizit ikusi leku. Zati zazu zure huntasuna eta emanezazu nik beharduana. - Ba, ene semia erraiten dizi aitak, nahi dukan bezala. Gaichto bat hiz eta gaztigatia izain hiz". Gero idokik tiranta bat, zatitzen dizi bere huntasuna eta egiten dizi bi parte berdin.

